

### **Donibane Garazi**

Zubi azpitik doan ura eztiki doa aintzina  
Arrainak goizetik jauzika barrandan ulitxen begira  
Elizan herriko zaintzale, han dugu Donibane.

**Agur, agur, Donibane Garazi**  
**Euskal Herri guziko parabisuari**  
**Bortz zubiren erdian zuk ederki**  
**Paregabezko herri izena merezi**  
**Egun oroz nago xoraturikan bizi**  
**Behatuz zuri hurbil dauden herrieri.**

**Beraz zutaz urrun ez naiteke mentura.**

Nola ez aipa zuharpeta udan lorez apaindua  
Dener ongi etorri dauka euskalduner edo bertzela  
Nehor iragan ez ditake, hura ikusi gabe.

Dantzari ta kantari onak dire zinez Garaztarrak  
Fandangotan zango arinak bai bestatzale hoberenak  
Aspaldi danik fama Dute, ta gora Donibane.